

Hizkuntza eta irudia goi mailan batzen direnean

Talentu fabrika modukoa da *Xabiroi*, irudigile trebeenak eta gidoilari puntakoenak komiki itxurako istorioetan uztartzen dituen. Jakina, euskaraz. Itzulpenekin konformatzen ez eta euskal produkzioa errotik astintzeko helburuz sortu zen. Merkatuan hamar zenbaki eta hiru album paratu ostean, kalitate maila batere apaldu gabe heldu dio hamaikagarrenari.

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA



Izen handiko egileak batzen ditu *Xabiroi*k. Adibidez, Alex San Vicente, Manu Ortega, Asisko, Raquel Alzate, Patxi Pelaez, Lope, Iñaki G. Holgado, Marko, Zaldi Eroa, Juan Luis Landa edota Dani Fano bera irudigile nahiz komikilarien artean; eta Harkaitz Cano, Patxi Zubizarreta edota Arantxa Iturbe gidoilarien artean.

IKASTOLETAKO Euskaraz Bizi programaren baitako ekimen guztiak bezala, geure hizkuntzaren erabilera geletatik kanpo sustatzeko helburuz plazaratu zen *Xabiroi*, lerrootan sehetzen ari garen komiki aldizkaria. Bi urte eta erdi joan dira geroztik. Gaur, jolas lekuan, jantokian, autobusean, lagunartean, etxean, nonahi betetzen ahal duen funtzio horretaz gainera, hasierako asmoa bera gaindikatzen duten

balioak ere aitortzen zaizkio bederrtizgarren arteari begira bizi den argitalpen honi. Garrantzitsuena, gazte nahiz helduentzako komikigintzaren hauspo izatea; euskarazko produktuari haize ematen dion bakarrenetakoa izatea. Eta, bidenabar, gazteei irakurzaletasuna pizteko produkturik erakargarrienetakoa bistaratzea.

“Euskarazko produkzioan zulo kronikoa ikusten genuelako heldu

genion serio gaiari —azaldu digu Arantza Munduategi Ikastolen Federazio-kokideak—. Haur eta gazteentzako literaturak segida duen bezala, komikigintzan herren genbiltzan aspaldian, *Ipurbeltz* aldizkariak txikiei erreparatzen baitie nagusiki. Geuk ere, Federazioak, haur hezkuntzarako material asko eman dugu argitara urtetan, baina DBHko ikasleei ezer gutxi eskaini izan diogu”.

Munduategik esandakoaren haritik, euskarazko komiki liburuak merkaturatzen dituen argitaletxe nagusiak, alegia Saurek, bikain osatutako katalogoa du dagoeneko merkatuan, baina bertan aurkituko ditugun obra gehienak Europako egile esanguratsuen itzulpenak dira mementuz.

Arrakastaren gakoak

Xabirok bide laua egin du orain arte. Ikastolen Federazioak zalantzarik gabeko babesa eman dio hastapenetik eta kasik oztoporik gabe mamitu izan dira zenbakiak. Munduatek aipatu digunez, lehen bi zenbakiak tirada masiboa izan zuten. Familia guztiei dohainik banatzeko adina inprimatu ziren eta argitalpen berria ikasle, irakasle nahiz gurasoen artean ezagutzera emateko baliatu zituzten.

Gero, jada adin tartea zehaztuta, 14.000tik gora finkatu da komiki aldizkari honen tirada. Ikastetxe bakoitzak komeni zaion kopurua eskatzen du eta euro baten truke saltzen zaio ikasleari. Ez da apenas alerik sobratzen. Ez da dirurik galtzen. Lorpen itzela.


Arrakastaren gakoak aztertzen hasita, bi fenomeno izan ditu bere alde *Xabirok*. Batetik, taldeari izendatu zaion kapitaina, Dani Fano, komikizale eta komikigile amorratua, punta-puntako kolaboratzaileak bildu eta tinko mantentzen jakin duena. Komikien kalitate mailari beti goian eustearen meritua ere hari zor zaio. Bestetik, Arantza Munduategi bera, ideari berehala usaina hartu ziona, erakundean nahiz instituzioetan asmoa mamitzeko bitartekoak lortzeaz gain, ikastolen sarea aldizkariaren sustapenerako eta salmentarako erabiltzen primeran asmatu duena.

“Ideiarekin bueltaka hasi ginenerako ezaguna genuen Dani Fano –argitu digu Munduatek–. Ezaguna eta estimatua, Federazioak plazaratzen dituen argitalpenetan, bereziki multimedia lanetan gurekin jarduna baitzen. Berehala konaturatu ginen gure proiektua bideratzeko dohain apartak zituela, mundu horretan dabilenaren abantaila guztiak txertatuko zizkiola aldizkariari”.

Fanok pozarren heldu zion erronkari, CD-ROMak ilustratzen eta bes-telako zereginetan gustura aritu izanagatik ere, komikigintza baitu lanik

Saiak

Tapaki gogorreko album itxura hartu aurretik, *Xabiroin* atalka argitaratu zen Iratiren istorio berri hau. Juan Luis Landa marrazkilariak eta Joxean Muñoz gidoilariak maisuki taxutua, modu honetan ondutako hirugarrena da.



maiteena. Bi irizpide nagusi finkatu zituen aldizkariaren ardura bere gain hartu zuenean. Lehena, kolaboratzaileei lanak duin ordaintzea: “Gure orrietan ikusiko dituzun egileak irudigintzan profesionalak dira. Kalitate handia bermatzen duten marrazkilari eta gidoilariak biltzen ditugu eta ordainik gabe ezin da maila gorena eskatu”. Horri esker, komikilari apartak eman dituzte ezagutzera. Kasurik esanguratsuenen artean, Iñaki G. Holgadoren dugu aipagarri. “Bere lanak Frantzian sona handikoa den *Spiro* aldizkarian edota *Heavy Metal* estatubatuarrean argitaratzen diren arren, hemen ezezaguna zen. *Xabirok* euskaraz ere sortzea ahalbidetu dio”.

Bigarren irizpidea, sorkuntzari askatasuna ematea, gaiaren hautua egileari libre uztea. Nagusiki ikastoletako ikasleen artean banatzeko produktua den arren, egileei ez zaie gaietan edo estiloan mugarik jartzten “zalantza agertu izan didanari –dio Fanok– paperean gogoak ematen diona para-

tzeko esan izan diot, ‘zerorrenzat balitz bezala egin’. Gazteei ezin baitzaie edozer eman. Usaina berehala hartuko liokete. Gazteen izenean ari bagara ere, helduentzako komikia da gurea, haur kutsurik gabea”.

Euskara landua

Idazketari dagokienez, taldean bi zuzentzaile dituzte testuen egokitasuna ziurtatzeko. “Egile gehienak euskaldunak dira –nabarmendu du Fanok–, hizkuntza ederki menderatzen dutenak, baina argitalpen gehienetan bezala, zenbat eta arreta handiagoa orduan eta emaitza hobekak lortzen dira”. Bestalde, aha-egin berezia egiten da gazteen erregistroak lantzeko. “Zorionez, Asisko, Kike Amonarriz edota Antton Olariaga bezalako adituak ditugu inguruan. Askotan azaltzen dizkiogu kezka elkarri”.

Aldizkari honen beltzune bakarra ikastolen saretik kanpoko salmenta dela esan liteke. Ikastoletan baino garestixeago, baina merke, oso merke eskaintzen bada ere (1,5 euro), Elkarreko megadendetan egin diren saioek emaitza makalak erakutsi dituzte orain arte. Beharbada, sustatze lanik kasik egiten ez delako. Beharbada, ikastoletatik kanpo ezagutzen ez delako nahiz produktua zuzenki ikastolari lotzen zaiolako. Beharbada, zenbaki batetik besterako tartean pista galtzen zaiolako –lauzpabost zenbaki argitaratzen dira urtean–.

Arduradunok dioskutenez, “*Xabiroi* bezalako lan bat libreki argitaratzea ezinezkoa da gaur egun. Ikastolena bezalako erakunde baten babesa ezinbestekoa da iraupena ziurtatzeko. Geure kasuan, bezeroak etxean bertan edukitzeak lasaitasun handia eman digu. Harremana askoz ere zuzenagoa da.”

Harpidetza egiteko modurik ere ez da abian jarri. Arantza Munduategik argitu digunez, bezeroak batzeko modu horri ez zaio bide errazik ikusten: “Ikastolen Federazioan arrotza zaigu sistema hori eta nahiago izan dugu lehenik dakigunari ondo heltzea”.

Nolanahi ere, aldizkari gaztea da *Xabiroi*, hasi berria, kanpora begira jarri aurretik oinarriak ongi sendotu nahi dituena. ■